



LH-6. MAILA  
4. UNITATE DIDAKTIKOA  
"Ez naiz bakarrik bizi"



**EZ NAIZ BAKARRIK BIZI-1: MAITASUNA = ONERAKO HARREMANAK**

Idatzi zure izena:

Zer da maitasuna? Noiz dago maitasuna? Nork maite nau? Nor maite dut? Etxean, familian, auzoan, eskolan, herrian, kirolean, lanean... MAITASUNA ON EGITEN DIGUN HARREMANA da. Maitasuna adierazi egiten da. Ikusi, nabaritu eta igarri egiten da.

1.- Idatzi "BAI" hitza **MAITASUNA** adierazten duten portaeretan:

	1. Bestearen askatasuna, autonomia eta zoriona sustatzea	
	2. Beti elkarrekin eta bakarrik egotea, jendarekin egon gabe	
	3. Bestearen bizitza proiektua errespetatzea eta laguntzea	
	4. Norberaren bizitza proiektua baztertzea bestearena egiteko	
	5. Zaletasun berak edukitzea eta beti jarduera berak egitea	
	6. Bakoitzaren proiektuak bultzatuko duen proiektu komuna egitea	
	7. Elkarrekin gustura egotea eta ondo pasatzea	
	8. Besteari gauza onak desiratzea eta lortzen duenean poztea	
	9. Elkarrekin egoteko denbora eta gogoia izatea	
	10. Soilik elkarrekin gaudenean ondo sentitzea eta gustura egotea	

Hona hemen harremanei eta maitasunari buruzko JOKABIDE eta PENTSAERA batzuk:

<p><b>NERE BAIMENA BEHAR DU EDONORK NEREKIN HARREMANAK IZATEKO.</b></p> <p></p> <p><b>ERRESPETURIK GABE EZ DAGO MAITASUNIK.</b></p>	1. Nik aukeratu eta egiten ditut, egunez egun, nire harremanak	2. Harremanak izatea da helburua, berdin du onak ala txarrak diren
	3. Maite nauena nitaz arduratzen da, ni babesten nau	4. Nahiz eta mina edo kalte egin, bihotz ona du eta maite nau
	5. Harremanak nire poza eta zorionerako dira	6. Maite ditudanak zaindu eta babesten ditut
	7. Nitaz dena jakin nahi izatea bere maitasunaren adierazgarria da	8. Edonork nire baimena behar du nirekin harremanak izateko
	9. Ezetz esateko eskubidea dut. Baietzik gabe, ezetza da!	10. Norbaitek min egiten badit, esan eta laguntza eskatuko dut

2.- Idatzi **benetako maitasuna SUSTATZEN** duten jokabide eta pentsaeren zenbakiak:

--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

3.- Idatzi **benetako maitasuna SUSTATZEN EZ** duten jokabideen zenbakiak:

--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

→ Giza Eskubiderik, berdintasunik eta askatasunik gabe ez dago maitasunik.